

2010eko OTSAILAREN 18ko UDALBATZARRA
PLENO DE 18 DE FEBRERO DE 2010

BERTARATUAK / ASISTEN:

ALKATEA / ALCALDE: JOSU IRATZOKI AGIRRE

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:

AMAYA TELLECHEA INDA, RAMON ELGORRIAGA ERRANDONEA, AINTZANE ARTOLA URRUTIA, HELENA SANTESTEBAN GUELBENZU, ALFREDO GOYENECHÉ INÉS, SANTIAGO ALZUGUREN MATXIKOTE (4. puntu), ISIDORA AGUIRRE UBIRIA, M^a SOL MARGARITA TABERNA IRAZOQUI, JON ABRIL OLAETXEA.

IDAZKARIA / SECRETARIA: PILAR CHUECA INTXUSTA.

BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:

RAFAEL ECHEVERRIA PERURENA (lana/ trabajo)

Tokia: BERAko Herriko Etxea.

Eguna: 2010-02-18

Ordua: 20:30

Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia

Lugar: Casa Consistorial de BERA.

Día: 18-02- 2010

Hora: 20:30

Tipo sesión: ordinaria, 1^a convocatoria.

TRATATZEKO GAIAK:

ASUNTOS A TRATAR:

1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-

1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-

**2010eko urtarrilaren 28an egindako bilera-
ren akta ikusirik, aho batez, ONARTU
DUTE.**

Vista el acta de la sesión celebrada el día 18 de febrero de 2010, por unanimidad SE APRUEBA.

2.- TOKI INBERTSIORAKO FONDO ESTATALAREN KARGURA EGINIKO BALIO ANITZEKO LOKALA EGOKITZEKO OBRAREN ALDAKETAK ONESTEA.

2.- APROBACIÓN DE LAS MODIFICACIONES DE LA OBRA DE REFORMA DE EDIFICIO PARA USOS MÚLTIPLES REALIZADAS CON CARGO AL FONDO ESTATAL DE INVERSIÓN LOCAL.

Aho batez, honako erabakia hartu dute:

Por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Ikusirik, Toki Inbertsiorako Fondo Estatalaren kargura eginiko obran, Balio anitzeko lokala egokitzekoan, izandako aldaketei buruz Obra Zuzendaritzak eginiko txostena, 2009ko abenduaren 30ekoa.

ERABAKI DUTE:

1) Toki Inbertsiorako Fondo Estatalaren kargura eginiko Balio anitzeko lokala egokitzeko obran izandako aldaketak, Obra Zuzendaritzak 2009ko abenduaren 30eko txostenean agertutakoak, eta horiei dagoen obra ziurtagiria onestea.

3.- BERA KO UDAL PLAN OROKORRAREN ALDAKETA XEHAKATUA, 7. SEKTOREKO UEFKOA HASIERA BATEZ ONESTEA.

Aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa izanik, honako erabakia hartu dute:

Ikusirik, Udal Plan Orokorreko 7. Sektoroko UEF unitatean aldaketa xehakatuaren espedientea.

Dokumentazioa: Proiektua Carlos Urrutia arkitektoak egin, 2009ko urrikoa.

Ikusirik, Toki Administrazioari buruzko 6/90 Foru Legearen 322.1.a) artikuluari jarraikiz Idazkaritzak egindako txostena.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 79. 3 eta 74 artikuluekin bat etorritz.

Gehiengo osoz, ERABAKI DUTE:

1) Udal Plan Orokorraren 7. Sektoroko UEF unitatean aldaketa xehakatuaren espedientea hasiera batez onestea,

Visto informe de la Dirección de Obra de fecha 30 de diciembre de 2009, sobre las modificaciones realizadas en la obra de reforma de edificio para usos múltiples llevada a cabo a cargo del Fondo Estatal de Inversión Local.

SE ACUERDA:

1) Aprobar el informe de la Dirección de Obra de fecha 30 de diciembre de 2009, sobre las modificaciones realizadas en la obra de reforma de edificio para usos múltiples llevada a cabo a cargo del Fondo Estatal de Inversión Local y la subsiguiente certificación de obra.

3.- APROBACIÓN INICIAL MODIFICACIÓN PORMENORIZADA EN LA UNIDAD UEF DEL SECTOR 7 DEL PLAN MUNICIPAL GENERAL DE BERA.

Por unanimidad, que representa la mayoría legalmente exigida, adoptan el siguiente acuerdo:

Visto expediente de modificación pormenorizada en la unidad UEF del Sector 7 del Plan General Municipal.

Documentación: Proyecto redactado por el arquitecto Carlos Urrutia, de fecha octubre de 2009.

Visto informe de Secretaría emitido según lo establecido en el artículo 322.1.a) de la Ley Foral 6/90 de Administración Local.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 79.3) y 74 de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

Por mayoría absoluta, SE ACUERDA:

1) Aprobar inicialmente la modificación pormenorizada de la unidad UEF del Sector 7 del Plan General Municipal, según las

honako oharren arabera:

1.1) Aldaketaren behin betiko onarpenaren aurretik, hirigintza fitxa aldatu beharko da, batez ere BOE blokeen eraikina inguratzen duen 5. lursaila, 234., 08 m², urbanizatu eta emateko obligazioa biltzen duena.

1.2) UEFko lur-zatiko azalera bat ez datorenez katastroko datuekin birpartzelazio proiektua izapidetu baino lehen, bederen, horren neurria justifikatu beharko da.

1.3) Obra lizentzia eta zubiaren exekuzioa ziurtatu aurretik, Zia erreka gainetik pasatzen den zubiaren kostuen banaketako proiektua Udalak idazten ez badu, UEF unitatearentzako beharrak betetzeko gutxi gora behera kalkulaturako den kantitatearen abal bat aurkeztu beharko du sustatzaileak.

2) Aipatu aldaketa hilabeteko epean jendaurrean jartzea, Nafarroako Foru Komunitatean argitaratzen diren egunkarrietan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean aurrez aurreko iragarkia jarrita.

3) Udal Plan Orokorraren aldaketa honek eragindako zonaldean, hots, 7. Sektoreko UEF unitatean (13. poligonoa, 259. lursaila), obra baimenak ematea eten gelditu direla seinalizatzea.

Hurrengo puntuan eztabaidatzen ari denean Santiago Alzuguren zinegotzia bertaratu da.

4.- 2010-2011ko IKASTURTEAN UDAL HAUR ESKOLAN SARTZEKO ARAUAK ONESTEAK.

siguientes indicaciones:

1.1) Previo a la aprobación definitiva de la presente modificación, se deberá modificar la ficha urbanística propuesta en el sentido de recoger la obligación de ceder y urbanizar los 234,08m² de la parcela 5 que rodea al edificio en bloque de VPO.

1.2) Al haber diferencias en la superficie de la UEF con los datos catastrales deberá justificarse la superficie de la citada parcela, cuando menos, antes de la tramitación del proyecto de reparcelación.

1.3) En caso de no redactarse por parte del Ayuntamiento el proyecto de distribución de costes del puente sobre la regata Zia, previo a licencia de obras y de cara a asegurar la ejecución de dicho puente, el promotor deberá presentar un aval por la cuantía que cubra las necesidades económicas que se calculen aproximadamente para la unidad UEF.

2) Someter dicha modificación a exposición pública durante el plazo de 1 mes, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en los diarios editados en la Comunidad Foral de Navarra.

3) Señalar que el otorgamiento de licencias de obras queda suspendido en el área afectada por esta modificación del Plan General Municipal, esto es, en la UEF del Sector 7 (parcela 259, polígono 13).

En el transcurso del debate del siguiente punto se incorpora a la sesión el concejal Santiago Alzuguren.

4.- APROBACIÓN NORMAS ADMISIÓN EN LA ESCUELA INFANTIL CURSO 2010-2011.

M^a Sol M. Tabernak gaia azaldu du:

Joan den urtetan bezala balorazio bera onartzea eskatu zaio Hezkuntza Departamentuari eta suposatzen da onartuko dutela.

Alkaiaga eta Zalain Txokon bizitzeagatik emateko baloraziari buruzko eztabaida sortu da, baina azkenean joan den urtean bezala egitea erabaki dute.

Beraz, aho batez, ondoko erabakia hartu dute:

Ikusirik Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren Zuzendari Nagusiak emandako urtarrilaren 19ko 9/2010 Ebazpena, Fondo Publikoen bidez finantzatutako Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan 2010-2011 ikasturtean haurrak onartzeko prozedura arautzen duena.

Ikusirik, Hezkuntza Kontseilariak emandako otsailaren 4ko 15/2010 Foru Agindua, aipatutako ikasturterako tarifak ezartzen dituena.

Ikusirik, Nafarroako Gobernutik bidalitako izena ematea eta ikasleak sartzeko aginduak Haur Eskolan 2010-2011ko ikasturtean matrikula egiteko.

Kontuan hartuz, joan den urtean ikasleak onartzeko Hautapen Batzordea izendatu zela eta ez dagoela aldaketarik.

ERABAKI DUTE:

1) Nafarroako Gobernuak bidalitako izena ematea eta ikasleak sartzeko aginduak, Haur Eskolan 2009-2010 ikasturtean matrikula egitekoak, onestea, espedientean dauden moduan.

**2) Lehen aipatu den 15/2010 Foru Agindua-
ren eranskinaren 5. oinarriari jarraikiz 50 euroko matrikulazio kuota ezartzea.**

M^a Sol M. Taberna explica el asunto:

Se ha solicitado la misma valoración del año pasado al Departamento de Educación y se supone que lo aceptarán.

Surge debate respecto a la valoración sobre la residencia en Alkaiaga y Zalain Txoko y, finalmente, se decide hacerlo igual que el año anterior.

Por lo que, por unanimidad, se adopta el siguiente acuerdo:

Vista Resolución 9/2010, de 19 de enero, de la Directora General de Ordenación, Calidad e Innovación, por la que se regula el procedimiento de admisión de niños y niñas para el curso 2010/2011 en centros de primer ciclo de Educación infantil sostenidos con fondos públicos.

Vista Orden Foral 15/2010, de 4 febrero, del Consejero de Educación, por la que se establecen las tarifas de las familias para el citado curso.

Vistas instrucciones para inscripción y admisión de alumnos para la matriculación en el curso 2010-2011 en la Escuela Infantil remitidas por el Gobierno de Navarra.

Teniendo en cuenta que la Comisión de Selección de alumnos ya fue nombrada el año pasado y no hay variación en la misma.

SE ACUERDA:

1) Aprobar las instrucciones sobre inscripción y admisión de alumnos/as para el curso 2010-2011 en el Centro de Educación Infantil remitido por el Gobierno de Navarra.

2) Establecer una cuota de matriculación de 50 euros de acuerdo con lo establecido en el base 5^a del anexo de la Orden Foral 15/2010, antes citada.

5.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-

Honako bando eta Alkatearen ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:

- 1) **Bandoak: B6/2010etik B11/2010era.**
- 2) **Ebazpenak: 2010eko urtarrilaren 22ko 14. ebazpenetik 2010eko otsailaren 12ko 33.era arte.**

Gai zerrendatik kanpo, premiazko bozketa egin ondoren, aho batez, legeak eskatutako gehiengo absolutua betea izanik, honako gai hau tratatu da:

6.- ALKAIAGAN ORSAK JARRI NAHI DUEN BREA-PLANTA.

Alkateak jarduera honi buruz Nafarroako Gobernuak aldeko txostena eman duela jakinarazi du.

Horretan, zinegotziek baimenaren aurkako jarrera adierazi dute.

Hori dela eta, aho batez, honako erabaki hau hartu dute:

Alkaiagan Orsak jarri nahi duen brea-planta dela eta, Udalak zera ERABAKI DU:

- 1) **Lehen agertu zen bezala, zera adieraztea Lesakako Udalari:**
 - **Alkaiagan brea-planta jartzeko jarduera baimena ematearekin Berako Udala ez dator bat.**
 - **Aipatu baimenaren aurka udal honek bere eskuetan dagoena ginen du.**

5.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-

Se dan por enterados de los siguientes bandos y resoluciones de la Alcaldía:

- 1) Bandos: del B6/2010 al B11/2010.
- 2) Resoluciones: De la resolución nº 14 de 22 de enero de 2010 a la nº 33 de 12 de febrero de 2010.

Fuera del orden del día, previa votación de urgencia, por unanimidad, que representa la mayoría legalmente exigida, se trata el siguiente asunto:

6.- PLANTA ASFALTICA A INSTALAR POR ORSA EN ALKAIAGA.

El alcalde pone en conocimiento que el Gobierno de Navarra ha emitido informe favorable sobre esta actividad.

Ante ello, los concejales manifiestan su opinión contraria a la licencia.

Por lo cual, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Respecto a la planta asfáltica que Orsa pretende instalar en Alkaiaga, SE ACUERDA:

- 1) Manifestar al Ayuntamiento de Lesaka, como ya le comunicó anteriormente, lo siguiente:
 - El Ayuntamiento de Bera es contrario a la concesión de la licencia de actividad para instalación de una planta asfáltica en Alkaiaga.
 - Este ayuntamiento hará todo lo que esté en su mano en contra de la citada licencia.
- 2) Remitir este acuerdo al Ayuntamiento de

2) Erabaki hau Lesakako Udalari bidaltzea. Lesaka.

7.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEEN KONTROLA.

7.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

Ez dira burutu.

No se producen.

Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 20:50etan.

No habiendo más asuntos, el Alcalde levanta la sesión a las 20:50 horas.

O.E. ALKATEA/ V.B. EL ALCALDE
Josu Iratzoki Agirre

IDAZKARIA/ LA SECRETARIA
Pilar Chueca Intxusta